



LEHEN HEZKUNTZAKO 2. zikloa: IPUIN SARITUA

IZOZKIREN URTEBETETZEA. Amaiur Zoroza Elorza

Bazen behin Txutxelandian Piruleta izeneko piruleta bat. Bazituen Gozoki izeneko lagun mina eta bere amona Izozki. Piruleta alai eta maitagarria zen, Gozoki atsegina eta Izozki irribarretsua. Amona Izozki gaixorik zegoen eta gutxi barru bere urtebetetzea izango zen. Piruleta eta Gozoki oso triste zeuden Izozki gaixorik zegoelako eta agian bere urtebetetzea galduko zuelako.

Halako batean, bere urtebetetzerako gutxi falta zenean, Izozki oso gaizki sentitzen hasi zen eta ospitalera eramatea erabaki zuten. Medikuek esan zion hurrengo egunerako ondo egongo zela eta etxera abiatu ziren. Pixkanaka iluntzen hasi zuen eta presaka etxera abiatu ziren baina handik gutxira, ilundu zuen eta Txutxelandiaren erdian geratu ziren oso beldurtuta. Piruletak argi bat urrun ikusi zuen eta hara joan ziren. Han etxe txiki bat aurkitu zuten eta barrura sartu ziren. Barruan gozokiak, erregalizak, piruletak eta izozkiak bizi ziren eta beraien lagunak egin ziren. Hurrengo egunean Gozoki eta Piruleta oso pozik zeuden Izozki ia ondo zegoelako. Urtebetetzerako apaingarriak erostera joan ziren eta gero gorde zituzten.



Azkenean Izozkiren urtebetetzea heldu zen. Piruleta eta Gozoki goizeko zazpitan altxatu ziren Izozkiren urtebetetzeko apaingarriak etxean jartzeko eta gozokiek, piruletek, erregalitzek eta izozkiek ere lagundu zieten. Izozkik etxean ikustean...hara nolako sorpresa! Dena apainduta zegoen eta Izozkik irribarre egin zuen eta denek oso ondo pasatu zuten urtebetetzean.

Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Txutxelandiako plazan!